



# Dantza, bi kulturen arteko zubi

Esbart Sant Martí talde kataluniarreko gaztetxoak Tolosan izango dira asteburuan, Udaberriko ikasleekin

**Itzea Urkizu** Tolosa

Torrelles de Llobregat-eko (Herrialde Katalanak) haur eta gaztetxo dantzariak Tolosan izango dira asteburuan, Udaberri dantza taldearekin antolatuta duten elkartruke bat dela eta. Kalejira eta emanaldia eskaintzeaz gain, bertako gaztetxoekin Tolosaldeko parajeak ezagutuko dituzte.

Bihar eguerdian iritsiko dira Torrelles de Llobregat-eko dantzari eta arduradunak Tolosara, eta Udaberriko kideekin batera bazkalduko dute. Dantza talde tolosarreko arduradunek azaldu dutenez, «kultur trukatzeari garrantzia eman nahi diogu, eta dantza egite hutsaz gain, garrantzitsua iruditzen zaigu haurrak elkar ezagutzea».

Horrela beraz, eta helburu horrekin jarraitze aldera, hainbat jolas antolatuta dituzte Usabalgo



2010ean izan zen bi dantza taldeetako belaualdi gazteenen arteko lehen elkartrukea. HITZA

Laskorain ikastolako jolastokian. Ondoren, kalejira abiatuko da, eta bi taldeetako gaztetxoek honako ibilbidea egingo dute, herriko kaleak girotuz: Iurre, Berazubi, Oriakalea, San Frantzisko, Trianguloa plaza, Korreo kalea eta Berdura plaza. Bertan hasiko da emanaldia, 18:30ak aldera; Gipuzkoako dantzak nahiz Bartzelona ingurukoak ikusi ahal izango dituzte bertaratuak, ordubetan inguru iraungo duen emanaldian.

Lizardi elkartearen afaldu ostean, Laskorain ikastolan pasako dute gaua Torrelles de Llobregat-eko dantzariak. Elkartrukearekin amaitzeko, igandean Tolosako txokoak bisitatuko dituzte, eta bazkalondoren abiatuko dira berri, etxera.

## Ekainean, Kataluniara

2005. urtean egin zuten, lehen elkartrukea, Udaberri eta Esbart Sant Martí-k. Tolosako Babarrun festa zela eta, Herrialde Katalane-

tatik etorri ziren dantzara; dantzari tolosarrekin Torrelles de Llobregateko Gerezien Jaian dantza-tu zuten gero.

Bi dantza taldeetako belaualdi berrien arteko harremana, ordea, duela bi urte hasi zen. Udaberriko kideek «oso esperientzia polita» izan zela diote, eta horregatik erabaki dute, jarduerak bera errepikatzea.

Datorren ekainaren 1etik 3ra izango dira tolosarrak, Torrelles de Llobregat-en.

## → Laburrak

### Ione Gorostazuren errezialdia Berastegin

**BERASTEGI** » Gaur, 21:30ean, Ione Gorostazuk poesia errezialdia eskainiko du Berastegin, aparkaleku azpian. Argitaratu berri duen *Des Egiten* libururu oinarrituta egingo du saioa, eta Lierni Ugartemendiak lagunduko dio, biolarekin.

### Alurr Tolosan ikusteko sarrerak eskuragarri jada

**TOLOSA** » Ibarroko Alurr dantza taldeak datorren maiatzaren 25ean eskainiko du, *Izanak dirau*, 1512 ikuskizun berria, Tolosako Leidor aretoan. Sarrerak erosi nahi dituenarentzat, [www.barrabarra.eu](http://www.barrabarra.eu) webgunean daude eskuragarri.

### Lif eta Beti Mugan taldeak bihar Bonberenean

**TOLOSA** » Lif eta Beti Mugan taldeak izango dira, bihar, 22:30etik aurrera, Tolosako Bonberenean. Bi talde hondarribiarrek doinu gogorrak eskainiko dituzte.

### Hiru film astebururako, Leidor aretoan

**TOLOSA** » Hiru film izango dira ikusgai asteburuan, Leidor aretoan. Bihar, 19:30ean, *Grupo 7* eskainiko dute, eta 22:30ean, berri, *¿Y ahora a dónde vamos?* Igandean, *Blancanieves* izango da gaztetxoentzat, 17:00etan; 19:30ean *¿Y ahora a dónde vamos?* eta 22:00etan *Grupo 7*. Astelehenetan, 20:30ean eskainiko dute *Grupo 7*.

### Oriako barandilan, balet erakustaldia igandean

**TOLOSA** » Igandean, Oriako barandilako balet erakustaldia izango da Zerkausi gaineko terrazan, 12:00etan.

### Sendotza sakramentua hartuko dute bihar

**TOLOSA** » Bihar, sendotza sakramentua hartuko dute Tolosako eta Ibarroko zenbait gaztek, gotzainaren eskutik. Ospakizuna Santa Maria parrokian izango da, 19:00etan.

### Ama Birjinaren mezak, hilabete osoan izaskunen

**IBARRA** » Maiatza Ama Birjinaren hilabetea dela eta, hirurogei urte baino gehiagoko ohiturari jarraituz, meza izango da, eguero, Izaskungo elizan, maiatza osoan: asteazken zehar, 06:45ean; igandeetan, 11:00etan.

# Gazteen sexu kezka, 'Lotsa gabe' antzerkian

**I. Urkizu** Tolosa

Gazteen sexu arazoak nahiz kezka hizpide izango dira, gaur Leidor eskainiko duten *Lotsa gabe* antzezlanean.

Inolako konplexurik gabe, hainbat galdera aiereratu dituzte pertsonaiek, umorez eta lotsagabekeriarekin.

Ainara Ortega, Asier Oruesagasti, Kepa Errasti, Oihana Martitoren eta Erika Olaizola ariko dira oholtza gainean, 20:30etik aurrera.

Ana Pimentarena da jatorrizko testua, eta antzezlaneko zuzendaria, berriz, Dorleta Urretabizkaia da. Sarrera doan izango da, Kutzaren laguntzaz.

## Irudia » Tolosa



## GOIZA HERRI KIROLETAN

Kirol plaza bilakatu zen, atzo, Tolosako Plaza Berria. Hainbat ikasle herri kirolean trebatuz aritu ziren goiz osoan zehar, hainbat proba eginez: sokatira, lokotx biltzea, ... I. TERRADILLOS

## Amezketako Udala

**IRAGARKIA**

Aurreko urteetan bezala, aurten ere Amezketako haur eta gaztetxoak izango dute udan ongi pasatzeko aukera. Amezketako Udalak, Zumadi ikastetxeko guraso elkartearen laguntzaz udaleku irekiak eta Uda Kirola antolatuko ditu uztaileko. Hezitzaile lanak egin nahi dituenak izena eman behar du udalekuean, maiatzak 15 baino lehen, 15:00etarako.

Gogoratu astean 9 orduko lana izango dutela haur eta gaztetxoekin, astearte, asteazken eta ostiraletan, 10:00etatik 13:00etara. Uztailearen 11n egun osoko lanaldia izango da. Hilean 40 ordu izango dira, eta beste 10 ordu, programa, memoria eta gurasoekin bilerak egiteko; gutzira 50 ordu.

**Hezitzaileen aukeraketan parte hartzeko ezinbestean bete beharreko baldintzak:**

1. 19urte beteta izatea edo 2012. urtean betetzea.
2. Ekainak 9an Amezketan antolatuko den formakuntza ikastaroan parte hartzea.

### Horrez gain kontuan izango da:

- Aisialdiko begirale edo zuzendari titulua izatea.
- Herrikoia izatea
- Heziketarekin zenikusia duten ikasketak izatea: irakasle-ikasketak, jendarte hezkuntza, pedagogia, psikologia, jendarte integrazioa, dinamizatzaile soziokulturala...
- Antzeko lanetan esperientzia izatea
- Sorosle titulua izatea.
- Taldea osatzerakoan oreka bilatuko da.

**Hauke dira baldintzak hautaketarako, eta gogoratu epea maiatzak 16an bukatuko dela.**

**Oharra:** antolatuta den formakuntza ikastaroa Amezketan izango da, 9:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Ikastaroa dohainik da, baina bazkaria norberak ordaindu beharko du. Menuak 11€ balio du eta bertako ostatu batean izango da.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Basoan aurrera joanez, Alkiza, Anoeta eta Hernialderen muga adierazten duen seinalera iritsiko da ibiltaria. Bidearen hasieran, berriz, Hernialderen ikuspegi ederraz gozatuko du. IT.

Hernialdetik Alkizara doan mendi-bidea erabiliko du ibiltariak. Alkiza begiztatu, eta bide polit eta lauan Hernialderako bidea hartuko du ostera, lau kilometro t'erdi egin arte.

# Hernialdetik Alkizara, basoan barna

**Iñigo Terradillos** Hernialde


**S**einale du udaberriko eguna dela. Koloretsu daude ikuspegiak, landareak eta zuhaitzak loretan baitaude, eta ondorioz, usain gozoa dago edonon. Animaliek ere atsegin dute urtaro hau. Nabari zaie, kantari edo txorrotxioka ari baitira. Egun aproposa ibilbide polit bat egiteko.

Hernialde izango du ibiltariak abiapuntu eta jomuga, eta tartean txoko politak ezagutzeaz gain, Tolosaldeko herri dotore honen inguruan zertxobait gehiago jakiteko aukera ere izango du. Esaterako, Manuel Santa Kruz udalerrri honetan aritu zela apaiz. Hernialdeko parrokoa zen 1868ko iraultzak Isabel II.a Espainiakoa bota zuenean. 1870eko urrian atxilotu zuten karlismoaren aldeko propaganda aktiboa egiteagatik, baina ihes egin zuen, eta handik bi urtera Hirugarren Gerra Karlista hasi zenean ere gauza bera egin zuen. Bada, bere ausardiarengatik egin zen ezagun, eta Hernialden plazari bere izena jarri zioten, omenaldi modura.

Plaza horretatik igaroko da autobus geltokitik abiatuta ibiltaria, eta frontoia eta elizaren artean pasa ostean, ezkerreko joko du. Proposaturiko ibilbidean aurrera eginez, mendi-bide batekin laster egingo du topo, baina aukera, denbora eta gogoia izanez gero, ezkerreko joko du. Bi familientzako etxeak amaitzean eskuinera jo, eta zertxobait gorantz eginda, 1940. urteko iturriarekin egingo du topo. Ur fresko eta naturala edatea bezalakorik ez dago ibilbide bati ekiteko.

Asetu eta lehengo bidetik aurrera eginez, ibiltaria Urdanbide-luze Handi eta Txiki baserrietara iritsiko da. Bide horrek Alkizaraino eramaten du. Bada, baserrietatik igaro bezain laster, uso postu batzuek dituen belazearen albotik igaro, zertxobait beherantz egin lur eta harrizko bidetik, eta basoan sartuko da mendizalea.

Bide atsegina, zuhaitzen itzalak estaltzen duena. Eguna eguzkitsua bada, eskertuko du ibiltariak basoan barna joatea. Aurreko egunetan euria egin badu, baina, arretaz eman beharko ditu pausoak, lohিতuta egon baitaiteke



IRITXI JAGOBA AZPIROTZ MANTEROLA

**Noaua** !!  
www.noaua.com

#### DATUAK

- **Luzera.** 4.500 metro.
- **Ezaugarriak.** Bira eta joan-etorri bat.
- **Hurbilketa.** Renfe trenean Tolosara edo Anoetara gerturatu, eta handik, autobusez igoko gara Hernialdera.
- **Hasiera-bukaera.** Hernialdeko autobus geltokian.
- **Zailtasun maila.** Malda errazak ditu, baina ibilbidearen bukaerako zatian dagoena nahiko luzea da. Gune batean bidezidorrak erraza du.
- **Azalpenak.** Ingurune aldapatsuan kokaturiko ibilbide nahiko laua.
- **Interesguneak.** Eliza, udal-etxea eta naturgunea.

bidea, eta sigi-saga eginez joan beharko du, putzuak saihestuz.

Alkiza, Anoeta eta Hernialde ukitzen dituen puntua ederki adierazita dago seinale batekin eta zuhaitzari eginiko atzamarrekin. Hori ere pasa, eta Alkizaraino iristeko aukera badu ibiltariak bideari jarraitu nahi izanez gero, baina, Alkiza begiztatu bezain laster, norabidea aldatu, eta bide beretik Hernialderako bidea hartzea proposatzen du ibilbideak. Mendi-bidean aurrera eginez, bukaera aldera dagoen aldapatxoarekin bat egitean, ezkerreko joko du, Anotza-Saletxe baserriera ailegatzeko. Hara iristen den errepidea hartu eta Hernialdera igoko da ibiltaria, abiapuntu izan duen geltokian amaitzeko.

Herniori zor dio izena bere magalean sortu zen herri honek. Mendi buelta atsegina egin nahi duenak bere inguruan aukera ugari izango ditu.



Udaberri koloreek atseginago egin ohi dute ibilaldia. IT.

# Tolosako azokak eta Kilometro 0-ren beste saio bat, bihar

Ilargi tabernako Mireia eta Edu izango dira sukaldariak, eta ilarrak izango dira erabiliko duten produktu nagusia

**I. Garcia Landa** Tolosa

Tolosako azokak + KM 0 ekimenaren beste saio bat izango da bihar, Zerkausian. Bertako produktua, bertako ekoizleak eta bertako sukaldariak, denek bat egiten dute egitasmo horretan. Oraingo honetan Tolosako Ilargi tabernako Mireia eta Edu izango dira sukaldari lanetan ariko direnak. Ilarrak izango dira plateraren produktu nagusia. Zehazki, ilarrak saltsan foie eta arrautza gorringoarekin prestatuko dute.

Goizean Zerkausian produktuak erosi ondoren, bertan egongo dira prestaketa lanak egiten eta 12:00ak inguru horretan ekingo diote banaketari.

Maiatzarekin batera, udaberri sasoiko produktuak puri-purian izaten dira larunbateroko Zerkausiko azokan. Horien artean, ilarrak. Gipuzkoako lurzorua eta klimaren berezitasunak kontuan hartuta, leku egokia da lurralde hau lekale honen ekoizpenarako.

Egitasmoaren bultzatzaileek gogorarazi dute Kilometro 0 izenaren esanahia: «Menuak prestatzeko gertuko produktuak edota ekoizlearengandik zuzenean jasotako produktuak erabiltzen dira». Egitasmoa 2009an jarri zuten abian Tolosan, Slow Food mugimenduarekin ere bat eginez.

# Txosten juridikoa egin nahi dute lurperatzeari buruz

Tolosako Larramendi auzoan lurperatzearen alde daudenek laguntza eskatu die bizilagunei txostena egiteko

**I. Garcia Landa** Tolosa

Lurperatzearen aldeko Larramendi auzoko bizilagun taldeak txosten juridiko bat eskatu nahi du egungo egoeraren berri izateko. Horretarako bilera egin zuten herenegun arratsaldean Tolosako kultur etxean, txosten hori izateko behar den dirua eskatzeko auzoko bizilagunei. «Gure helburua Larramendi kalearen lurperatzea egitea da eta hori lortzeko juridikoki zer aukera ditugun ezagutu nahi dugun», esan zuten.

Bileraren hasieran, bideratu zuten azken ekimenaren berri eman zuten bizilagun taldeak, hau da, etxebizitza berrien sustatzailerik bidalitako burofaxa: «250 bizilagunek sinatuta, lurperatzea egiteko exijitu zaie, baina ez dute erantzunik eman eta minduta

gaude beraien jarrerarengatik». Bestalde, Tolosako Udalak bultzatu duen batzordetik atera zirela azaldu zuten: «Batzorde hori udalaren proiektuari buruz hitz egiteko zen, eta horregatik bertatik atera ginen». Egoera horien aurrean hurrengo pausoa juridikoki zer aukera dituzten ikustea dela azaldu zuten bileran. «Guk ez ditugu baliabide ekonomikorik, horregatik bizilagunen laguntza eskatzen dugun», azaldu zuten. Hori horrela, hiru abokatu bulegotara joan direla azaldu zuten eta hauek egindako aurrekontuak erakutsi zituzten. Bileran zeudenen artean bozkatu zuten eta Arruti y Antunez bulegoarena aukeratu zen aho batez.

Bizilagun taldeak kostuari aurre egiteko Kutzaren 2101 0067 26 0013007646 kontuan etxebizitzako 20 euro jartzeko eskaria egin dute. Dirua sartzera ezkeratzen zuten zenbakia eta etxebizitzaren solairua eta letra jartzeko esan dute, diru hori ez bada erabiltzen, azkenean jarri duenari itzultzeko.

## → Laburrak

### PSE-EEK hondakinei buruz hitzaldia antolatu du

**TOLOSA** Tolosako PSE-EEK hitzaldia antolatu du gaurko, hiri hondakinen kudeaketaren inguruan. Kultur etxean izango da, 19:00etan. Bertan parte hartuko dute Susana Corcuera Gipuzkoako PSE-EEKo udal politikako idazkariak eta Manuel Blazquez ingurumen teknikariak.

### Nerabezaroa hizpide, Orixe institutuan

**TOLOSA** Orixe institutuak hitzaldi sorta antolatu du. Lehengo astelehenean izango da, 18:30ean. **Nerabezaroa: identitate batluztea, lagun taldea eta ziurtasun eza** izenburupean. Hilario Garrudo psikologo klinikoa izango da hizlaria.

### Ibilaldi Neurtua egingo dute Jesusen Bihotzakoe

**VILLABONA-ZIZURKIL** Datorren igandean, maiatzak 6, ibilaldi Neurtua egingo dute Jesusen Bihotza ikastolakoek. Bi ibilbide izango dira, bata, laburra eta, bestea, luzea. Lehengo, Zizurkil eta Villabona artean izango da eta 10:30ean hasiko da; bigarrena, 09:00etan hasiko da Zizurkil eta Alkiza, Larrail, Asteasu eta Villabonan zehar izango da. Bi ibilbideak, Zizurkilgo ikastolan hasi eta Txerminen amaituko dira. Urtero bezala, parte hartzaileek, ibilaldi Neurtua bukatu ostean, hamaiketako dastatzeko aukera izango dute, Txerminen.

### TAO txartela lortzeko aukera, astelehenean

**IBARRA** TAOren txartela lortzeko tramitazioa aurreko astean amaitu bazen ere, datorren astelehenean, hilak 7, aukera izango da horretarako, 08:30etik 13:30era. Bestetik, maiatzetik aurrera 2011ko TAOko txartelak balio gabetuta geratzen direla esan du udalak.






Rebeka Calvo Orexa

Tolosaldeko lehen festak hasi dira jada; Orexan atzo eguerdian jaitsi zen oilarra, eta Asteasuko Elizmendi auzoan bihar hasiko dituzte jai egunak.

### ↓ Santa Cruz Jaiak

#### ASTEASUKO ELIZMENDIN

##### Maiatzak 5, bihar

- 16:30ean. Txupinazoa.
- 16:30ean. Mus txapelketa.
- Ondoren. Duatloia.
- 19:00. Haurrentzako zezen txiki eta poneyak.
- 20:30. Herri afaria.
- 23:00. Erromeria.
- Goizaldera. Txokolate jatea.

##### Maiatzak 6, igandea

- 11:30. Meza nagusia.
- Ondoren. Hamaiketakoa.
- 17:30. Herri kirolak.
- Ondoren. Trikitilariak.
- 20:00. Simonen igoera.

#### OREXA

##### Maiatzak 4, gaur

- 19:00. Trikipoteoa.
- 20:30. Afari merienda.
- Ondoren. Trikitilariak.

##### Maiatzak 5, larunbata

- 16:30. Jolasak eta merienda.
- 19:30. Batukada taldea.
- 21:00. Herri afaria.
- Ondoren. Dantzaldia.
- Bukatzeko. Baratzuri zopa.

##### Maiatzak 6, igandea

- 12:00. Pilota partidak.
- 17:30. Herri kirolak.
- 18:30. Sagardo dastatzea.
- 20:00. Bertsolariak.
- Ondoren. Oilarraren igoera.

## XIV Orduak hizketagai, HITZaren mahai inguruan

R. C. Tolosa

Maiatzaren 27n izango da lau urtez behin Aralarko Adiskideak elkarteak antolatutako ohi duen XIV Orduak proba. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA ibilaldirako informazioa ematen ari da aste hauetan, eta astelehenerako, hilak 7rako, mahai ingurua ere antolatutako du. 20:00etan izango da, Tolosako kultur etxean, eta bertan 6 adituk hartuko dute parte: Aralarko Adiskideak elkarteko Jon Ormazabal, Hur Lertxundi sendagilea, Alberto Luengo biologia, Demetrio Bengoa eta Nekane Tolosa mendizaleak, eta Aizkardi mendi elkarteko Maddi Bengoetxea. [tolosa.hitza.info](mailto:tolosa.hitza.info) webgunean zuzenean ikusi ahal izango da mahai ingurua.

## Oilarra jaitsi da Orexan, hasi da jaiak



Atzo eguerdian hasi zituzten jaiak, Orexan. R. CALVO

## Anetako Ateaga baserri ondoko karobi zuloa garbituko dute, bihar

R. C. Anoeta

Anoetako Udalak auzolanerako deia egin du biharko.

10:00etan elkartuko dira plaza, eta hortik Ateaga baserri ondoko karobi zuloa garbitzera joango dira, batetik, eta Ateaga-Etxeberri baserrietik gertu dago-

en aska babesteko itxitura egitera, bestetik.

#### Hamaiketakoa

Udalak herritar guztiak animatu nahi ditu auzolanean parte hartzera, eta, ondoren, lanak bukatuta, hamaiketakoa banatuko duela ere gogoratu nahi izan du.

**Are gehiago aseguratatu.**

Aseguratu zure autoa\*  
Kutxabankekin eta jarraitu gehitzen: lasaitasun gehiago, erosotasun gehiago.

Zenbat eta Kutxabankago izan, orduan eta abantaila gehiago aseguratuko duzu.

kutxabank **k**

kutxa  
gehiago gara.

## XIV Orduak

## Demetrio Bengoa ◊ Mendizalea

Mendizalea beterranoa da Bengoa; XIV Orduko ibilaldi gehien egin dituen mendizalea da eta sasoiari dago 74 urterekin. Aurten ere parte hartzeko animatuta dago.

# «Mendian sufrimendu asko, baina gauza positiboak daude»

Joxemi Saizar Berrobi

Demetrio Bengoa Legarra (Alkiza, 1937) da Olinpiar Jokoekin batera egiten denetik, 1972tik aurrera, XIV Orduak ibilaldi guztiak egin dituen mendizale bakarra; 10 aldiz 1972tik hona. Anoetan bizi da, baina Berrobin, Belabieta mendien magalean, duen base-errian izan da HITZArekin, bere esperientziak eta bizipenak azaltzen.

## Animatuta al zaude aurten ere XIV Orduak ibilaldia egiteko?

Bai, gogoarekin eta ilusioarekin hartu behar dira gauzak. Konfiantza badut eta ondo badao dena, egingo dut aurten ere. Aurtengoa azkena izango ote zen galdetu zidan batek eta hori ez dela horrela esaten erantzun nion. Ondo egonez gero, gehiago ere egin nahi nintzen, baina ondo ibiltzekotan. Gaizki ibiltzeko ez du merezi.

## Norekin ibilizaraz gehien mendian?

Lehen aldian ez naiz gogoratzen norekin ateratzen, baina asko ibili naiz Agustin Zubeldia, nire koinatua Manuel Mari Ugarte mendia, Inaki Gurrutxaga eta beste batzuekin. Aurten bi seme, alaba eta suhiarekin aterako naiz. Biloba ere zalantzan dago. Ilusio egingo lidake hiru belaunaldi batera ateratzeko, baina ez dakit aterako den.

## Noiz hasizinen mendian ibiltzen?

Zumitzeta baserrikoa naiz eta aita zenaren ondoan ezin zen mendira joan, lana eta lana zegoelako base-errian. Beti gustatu izan zait mendia, baina ezkonduz gero hasi nintzen joaten.

## Zer du mendiak?

Ezin da esplikatu, gustatu egin behar. Sufritzen ikasi behar da, ez bakarrik ibiltzen. Mendian sufri-

mentu asko izaten da: eguraldi txarra, beroa, lainoa sartu delako, elurra, beste ezin batzuk... Beti era positiboan hartu behar da eta buelta bat eginda gero poza ematen du egin duzun bide osoa ikusteak. Eta zenbat eta ibilaldi handiagoa egin, gusturago. Etxera etorri eta dutxa gustura hartzen da, jan gustura, etzan gustura... Gauza positibo asko ditu mendiak. Hori probatu ez duenak ez daki.

## Non ibilizaraz gehienbat?

Inguruko mendietan ibili gara beti, Tolosatik Txindokira adibidez, eta normalean eguerdian bazkaltzera etxera, 5-6 orduko ibilaldiak. Hortik aurrera ezer asko ez. Pirinioetan asko ez naiz ibili, Aralarko Adiskideak elkarrekin ibilaldiak antolatzen zituenean dezent eta Alpino Uzturre elkarrekin ere bai. Egindako altura handiena Pirinioetako Perdido mendia izango dut. Ez dut aukera handirik izan kanpora ateratzeko, gaurko gazteak ibiltzen diren bezala. Gu lotuagoak geunden hemen, bi egunetarako kanpora joateko askatasunik ez dut izan.

## XIV Orduak ibilaldia buruz zer esan dezakezu?

Gehienetan eguraldi ona izan dudala. Batean euria, trumoi eta tximista zegoen Berazubira joandakoan, baina gero sekulako eguraldia egin zuen. Beti 14 ordu inguruan ibili gara. Gaztetan denbora baino lehenago iritsi eta gero kontrolean denbora pasa ezinik egoten ginen. Gaztetako txorakeriak. Minik eta lesiorik ez dut sekula izan.

## Atera aurretik ba al zenuen bere berriri?

Bai, behin afaltzen gelditu eta gaueko 12etan iritsi zirela Tolosa-



J. SAIZAR

ra entzun nuen. 1972an ateratzen lehenean, Olinpiar Jokoekin batera antolatzen hasi zirenean. Harrirta gelditu nintzen ordutik hona martxa guztiak egindako bakarra naizela esan zidatenean. Nire adineko gutxi ateratzen dira orain, gero eta gutxiago. Bidegorriak eta kiroldegiak dena xurgatu du. Horrela ezin da mendirako prestatu, hanketan kailua egin behar da. Zakurrarekin aterata eta edozein garaitan konturatu gabe lau edo bost orduko buelta egiten dut: San Lorenzo, Belabieta, Uzturre eta etxera berri. Hori ezin da egin kiroldegian. Adin batetik aurrera, medikuek zelaian ibiltzeko esaten dute beti. Ni ez noa toki horietara. Ez dut esango ez naizenik joango, baina oraingo ez.

## Zein da zure prestakuntza aurtengo martxarako?

Urtean zehar erabat ibili, astebururo, eta orain astean zehar ere bai, libre nagoelako. Azken aldi-duelan 20 urte baino errazago egin dut martxa hau. Aurtengoa ez dakit nola egingo dudana. Lehenbiziokoetan sasoi saltzeko eta guzti nuen. Baina hasiberriak ginen eta gehiago izorratzen da pertsona, ez duelako kontrolatzen. Orain esperientzia gehiago daukat eta hobeto bukatu dut azken txandetan. Makilak erabiltzen ditut aspaldi eta kristoren laguntza da, ondo ikasiz gero erabiltzen. Aldakak eta hankak zaintzeko onak dira. Prestakuntza berezirik ez dut egin aurten. Villabonako Aizkardi elkarrearen proba egin nuen eta Erniopeko ibilaldia ere

egiteko asmoa daukat hobeto prestatzeko.

## Januari buruz zer esan diezakezue parte hartu behar duten mendizaleei?

Maiz edan eta jan behar dela, baina neronek ere askotan ez dut hori betetzen. Bi ordutik behin zerbaitea jatea komeni da. Urzalea ez naiz, baina komeni da edatea. Batzuetan gogo txarrez ere edan egin behar da. Urari botatzeko ematen dituzten bitamina horiek ere onak dira. Asko jatea ere txarra da. Bazkaltzen gelditu izan gara, lehenbizi txandetan, orduete edo gelditzen ginen San Migelera, jatetxean edo familiak eramandakoa jaten, kafe konpletua hartuta, Farias eta guzti. Eta Igaratzen lagunak beste puru bat eskaintzen zidan. Horiek ahaztu ziren. Erretzen uzten ari naiz, baina ezin dut erabat utzi, egunean hiruzpalau puru txiki erretzen ditut oraindik.

## Zein da ibilaldiko zatirik politena?

Tolosatik San Migelera, dudarik gabe. Eta aspergarriena, Guardetxetik Igaratzara. Beti hala izan da niretzat. Amezketako Mehatzetan jende asko pilatzen da orain, lehen edizioetan ez, baina ikararik ez dit ematen, beti ondo joan izan naiz leku horretan. Eta Amezketatik Tolosara errepidea da eta ordurako nekatur egoten gara gainera gehienok, baina bukaera da eta horrek poztu egiten gaitu.

## Eta ibilaldia bukatu ondoren zer komeni da?

Lehenbailehen dutxa hartzea bezalako gauzarik ez dago. Pixka bat ibiltzea ona da, ez da komeni erabat gelditzea eserita, kasu batzuetan egin izan dugun bezala.

## Azkenaholkuren bat aurten animatu direnentzat?

Gustuarekin eta ilusioarekin hartu behar da ibilaldia. Hamalau ordu oinez agoantatu behar dela pentsatu behar da, ez noraino joan behar dugun. Mendia lasai hartu behar da, baina paseo bezala ere ez, egur pixka bat eman behar zaio. Mendiak ez du sekretu handirik. Zenbat aldiz jaitsi naizen Amezketaraino botan harri koskorra nuela, baina ez gelditzeagatik, segi! Ikasi behar da sufritzen. Nahi bada, posible da. Eta aurrera!



saridunak



sarrerak

HITZAK harpidedun batentzat sarrera pareia du



LAGUN ARO GBC  
Gran Canaria 2014

saskibaloia partida

Maiatzak 6  
Ilgandea  
18:00etan  
Donostiako Itunben

• Juan Jose Ruiz (Tolosa)

Sarrerak Tolosako HITZAko egoitzan

HITZAK harpidedunentzat 2 sarrera pare dituzte

## Subegi Eguneko Kontzertuak

Maiatzak 12 • Larunbata • 20:30ean  
Ibarrako Emeterio Arrese parkean

• Agustin Agote (Tolosa)  
• Itziar Arratibel (Ibarra)

Sarrerak leihatilan bertan



## Porrotx eta Largabista Mariren Zuhaitzian, igandean

E. Maiz Abaltzisketa

Porrotx eta Largabista pailazoak Larraitzen ikusteko aukera izango da. Mariren Zuhaitzia zuhaitz parkean ibiliko dira, igandean, hilak 6, 11:00etatik 12:00etara. Bertaratzten direnek, pailazoak zuhaitzetik zuhaitzera jolasean ikusteko aukera izango dute, eta beraiekin ibiltzekoa ere bai.

12:00etan, berriz, *Hazi eta Hezi* aldizkaria aurkeztuko dute, bertan. Hiruhilabetekari berriak heziketarako tresna ballotsua ez ezik, euskal eredu propio berri bat sustatzea du helburu. Hilk Hasik ateratako aldizkari berria da. Gurasoengandik hasi eta aitona-amonenganaino balio duen heziketa integral, aske eta kritikoa landu nahi du aldizkariak.

## Olaetxearen eta Barriolaren txanda, Eskuz Banakako txapelketan

E. Maiz Lizartza / Leitza

Mikel Olaetxea lizartzarrari eta Abel Barriola leitzarrari iritsi zaie Eskuz Banakako txapelketan jokatzeko unea. Olaetxeak Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu du Albisuren aurka. Partida larunbatean izango da. Partida hau irabazten duenak, Retegi Bi izango du zain.

Abel Barriolak, berriz, igandean jokatu du partida, eta Begino izango du aurkaria. Eibarko astelehena pilotalekuan ariko dira, eta irabazleak, Martinez Irujoren aurka lehiatu beharko du.

## Gallurralde eta Senperena, paleta goman txapeldun

Asteburuan Alegiako eta Ikaztegietakoko pilotalekuetan jokatu dira hainbat mailatako partidak

Eneritz Maiz

Udaberri Paleta Goma txapelketako finala larunbatean jokatu zen, Alegiako pilotalekuan. Maite Gallurralde eta Maialen Senperenak irabazi zuten partida. Su Berriko bikotearen aurka jokatu zuten finala, eta 30 eta 23 irabazi zuten.

Intxurre taldeko bikoteak bigarren urte jarraian irabazi du txapelketan.

**Hainbat pilota partida**

Alegiako eta Ikaztegietakoko pilotalekuan hainbat partida jokatu dituzte, asteburuan. Gaur, 19:00etatik aurrera Alegian jokatu dituzte, Lau t'erdian: kadete mailan, Cisnerosen aurka jokatu du Intxurreko Goikoetxeak; jubenil mailan, Kortabarria izango du aurkari, Intxurreko Mujika pi-



Gallurraldek eta Senperenak irabazi dute txapelketan. HITZA

lotariak, eta afizionatuen partida Arrizabalaga eta Zabalaren artekoa izango da.

Larunbat arratsaldeko partidak ere Alegian izango dira. Udaberri torneooko partidak 16:00etan hasiko dira. Infantil mailakoek bina-kakoan jokatu dute. Bost partidetan, Aurrera Saiazeko pilotariak Intxurrekoen aurka jokatu dute.

Igandeko partidak, berriz, Ikaztegietakoko pilotalekuan izango dira. 10:30ean hasiko dira, eta lau

partidak, Lau t'erdian jokatu dituzte.

Kadeteen mailan bi partida izango dira: Gelis zestoarraren aurka Intxurreko Luzuriaga pilotariak jokatu du, eta Egiguren izango du aurkari Intxurreko Iribarrenek. Afizionatuen mailakoan artean, berriz, lehena Juaristi eta Esnaola Intxurreta taldekoaren artekoa izango da, eta bigarrena, Oiarzabal eta Intxurreko Gorostidiren artekoa.

• [alegiatolosa@hitza.info](mailto:alegiatolosa@hitza.info)

## Eskola txikien aldeko 25 Urte, 25 Tontor ekimena, asteburuan

Eskola txiki bakoitzak bihar eta etzi, tontor bat igoko du; ikasle, guraso, irakasle, eta herritarrak gonbidatu dituzte

E. Maiz

Eskola Txikien lehen festa egin zela hogeita bost urte betetzen dira aurten, eta 25 Urte, 25 Tontor ekimena prestatu dute astebururako. Gipuzkoako Eskola Txikie-

tako ikasleak, gurasoak, irakasleak zein herrikideak hainbat mendietara igoko dira, bihar eta etzi. Eskualdean daudenek ere, tontoretara iristea izango dute helburu. Lehen festa ospatu zeneko 25. urteurrena ospatuko dute. «Herri bakoitzak pankarta bat eraman du bere herriaren izenarekin eta eskola txikien logoarekin», adierazi dute koordinakundetik.

Tontorrean argazki bat aterako dute: «Eskola txikien webgurean argitaratuko ditugu argazki guztiak. Txikiak izanagatik hor

gaude eta zabaldu egin nahi dugun», diote. Hogeita bost tontorrrak «asteburu berdinean igoko ditugu, elkarrekin egon ez arren, batera egiten dugun ekimen bat izan dadin».

Esaterako, Altzokoak Otsabiora igoko dira, Ikaztegietakoko Intxurrera, Abaltzizketakoak Txuntxurre mendira eta Lizartzakoak Oresako Espuru gainera.

Lehen Eskola Txikietakoko Festa Bidegoianen ospatu zen, 1988. urtean, eta *Eskola Txikiak Bizirik* leloa izan zuen. 25 urte geroago,

Larraularen ospatuko da festa, ekainaren 3an. Bizirik irauongo badute, herriak eta eskolak elkarren beharra dutela aldarrikatuko dute.

**Kaxa bidaiaria**

Hogeita bost urte hauetan festa antolatuta duten eskoletatik bidaiatzen ari den kutxa da kaxa bidaiaria. «Urte hasieran jarri genuen abian, eskola bakoitzean zerbait ari dira sartzen, dela bertso bat, dela festa hartako logoa, dela idatzi nahi duten edozer». Irakasleen parte hartzea funtsezkoa izan da ekimena aurrera eramateko. Larraularen izango da kutxa, eta barruan dakartzan *altxorrrak* erakutsiko dituzte.

• [tolosaldea@hitza.info](mailto:tolosaldea@hitza.info)

## Hilberriak eta urteurrenak

### ESKELAK

943-65 56 95  
tolosaldean  
@hitza.info



### JESUS AMIAMA SOROZABAL

(Maria Isabel Belokiren alarguna)

Eli Amiama irakaslearen aita



Altzoko Imaz bertsoaria eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak.

ALTZON, 2012ko maiatzaren 4an



### MICAELA MARTINCORENA ANSORENA andrea

(Juan Jose Aizpuru-ren alarguna)

2012ko maiatzaren 3an hil zen, 93 urte zituela, Elitzakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian Bego -

Bere arimaren zuzendaria: Imanol Uranga; seme-alabak: Kontxi eta Martin Apaolaza, Maria Jesus eta Jose Antonio Gogorza, Maite eta Antonio Zubeldia, Pepi eta Jose Ramon Pikabea; bilobak: Maider eta Iñaki, Olatz, Ainhara eta Alain, Amaia eta Ander, Itziar eta Julen, Izaro eta Jon; birlabak: Liher, Yune; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otoi bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitezte OSTIRALA arratsaldeko ZAZPIETAN Tolosako CORPUS CHRISTI parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Izaskun auzoa, 5, Oharra: Gorputz bella Tolosako FUNERARIA VASCONGADA tanatorioan egongo da, OSTIRALA 10:45ak arte.

TOLOSAN, 2012ko maiatzaren 4an



≈ 22°  
≈ 11°

|             |       |
|-------------|-------|
| GOIZA       | EURIA |
| ARRATSALDEA | EURIA |
| BEROENA     | 17°   |
| HOTZENA     | 10°   |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agurrak



### Zorionak Otxoko!

Oztopoak oztopo otxotarron uluekin goazen gure ametsen txokora! Maite haugu!



### Zorionak eta urte askotarako!

**Amaiur Leunda Elorza (Tolosa).**

Gaur 2 urte.

Aiton-amona, osaba-izeba eta Landerren partez, zorionak!



### Urte askoan!

**Urki Artola Amundarain (Tolosa).**

Gaur 7 urte.

Zorionak eta muxu handi bat denon partetik.

### AGURRAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●● agurrak

## Publierreportajea

# Erre Berri 12. urteurrena ospatu nahi du bezeroekin



San Frantzisko pasealekuan dagoen Erre Berri okindegia. A. ETXANIZ

Bezeroei, beren fidelotasuna eskertzeko, pastelak eskuratzeko eskaintza berezia egingo die okindegiak

ratu daiteke, eta horretarako den-dara joan behar da; bertan esango dute urtebetetzea ospatzeko behar den pastela nola eskuratu daitekeen.

### 12 urtez lanean

Tolosako San Frantzisko pasealekuko 25. zenbakian dagoen Erre Berri okindegian urtebetetzea dute. 12. urtemuga dute eta zorioneko daudenez, beren bezeroekin konpartitu nahi dute urtebetetzea.

«Eta nola eskertu nahi dute bezeroen fidelotasuna? Opari batekin, eta oparia, nola ez, gozoa da. Bezeroei pastel bat eskuratzeko aukera emango diete, eta horretarako eskaintza berezi bat dute. Pastela oso modu errazean esku-

San Frantzisko pasealekuko saltokia 2000. urteko apirilaren 28an ireki zuten. Urte hauetan guztietan bezeroak izan dituzte beti, go-goan. «Denbora oso azkar joaten da... 12 urte dira jada saltokiko ibilbidea hasi genuela, eta 12 urte hauetan zuek, bezeroak, zaintzen saiatu gara, izan ere, zuek zarete egunero-egunero zuen fidelotasuna ematen diguzuenak», esan du okindegiko Lourdes Medranok. «Eskerrik asko zuen fidelotasunarengatik», gaineratu du.

## Farmaziak

### GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

### BIHAR

■ **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

### ETZI

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

### ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

**OKINDEGIA**

Idoia plaza, 5 - 20400 IBARRA - Tel.: 943 67 57 81  
San Frantzisko, 25 - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 69 80 62  
Azkue, 12 - 20400 IBARRA - Tel.: 943 67 62 59